

ERAGIN #Plazandre



2018



Euskadiko
Gaztearen
Kontseilua
Consejo de
la Juventud
de Euzkadi



EMAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERREGLU ETXERAT
POLITIKARIO BAKIA
GOBERNAMENTO DE EREGLIO
Y POLÍTICAS SOCIALES



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

1. SARRERA	1
2. ZER DA GIZA LIBURUTEGIAK IZENeko METODOLOGIA?	2
3. EMakumeak ESPAZIO PUBLIKOAN	4
4. BIDEak ERAIKITZEN	8
5. ITXIERA	11
6. APARTEKO MATERIALA	12
7. BIBLIOGRAFIA	14

*“Tradizioak asmatuak
dira: apurtu daitezke”*

AMAIA AROMA

Plazan jo zuen lehen
emakume txistularia

SARRERA

Denok esan izan dugu inoiz “benga, parte hartuko dut!” gure barrurako. Batzuetan, arrapaladan eta lotsati jaurtitzen ditugu ideia zertxobait nahasiak; besteetan, isildu egiten gara beldur bagina bezala. Dena dela, behin hitza hartu ostean, harrotasun moduko bat sentitzen dugu.

Hurrengo ondorio-txostenak parte-hartzeari, espazio publikoetan hitz egiteari eta ahalduztzeari buruz hitz egiten du; 2018ko urriaren 31n, UPV/EHU-ko Bizkaia Aretoan buruturiko **#Plazandre** topaketaren ondorio-txostena baita.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gazte eragile desberdinek zein Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) antolatutako zenbait hitzaldi, topaketa eta dinamiketan parte-hartzea orokorrean maskulinoa dela ikusi da. Hori dela-eta, Euskadiko emakume gazteek espazio publikoetan duten parte-hartzea aztertu nahi izan du EGK-k. Hausnarketa hori burutu eta soluzioak bilatzeko tresna moduan eratu zen **#Plazandre**.

Topaketak bi atal nagusi izan zituen. Alde batetik, egun EAEn esfera publikoan diharduten emakume ezagunekin solasaldi baterako tarteak egon zen, euren esperientzietatik abiatuz emakumeek esfera publikoan egoteko dituzten beldur eta oztopoei buruz hitz egiteko. Bestetik, solasaldi horietan hitz egindakoaren ondorioak atera eta amankomunean jarri ziren.

Lehendabiziko atala aurrera eramateko, EGK-ko parte-hartze lan-arlotik egindako *Parte-hartzea European* txostenean aztertzen den Giza Liburutegiaren metodologia erabili zen.

ZER DA

GIZA- LIBURUTEGIAK

IZENKO METODOLOGIA?

Euskadiko
Gaztearen
Kontseilua

Metodologia hau Copenhaguen sortu zen 1993. urtean eta ordutik hainbat tokitan erabilia izan da. Hala ere, EAEn oraindik ere arrotza da askorentzat.

Giza Liburutegien helburua ezagutzak eta esperientziak elkarriketen bidez konpartitzea da. Horretarako, hainbat protagonistek euren bizipenak espazio intimoa eta txiki batean kontatzeko arduraz hartzen dute. Ekintza bera baino lehenago, beraiei bizipenak idatzi bat sortuko dute; katalogo batean jarriko dena eta entzuleek solasaldia izan baino lehenago irakurtzeko aukera izango dutena.

Pertsonak 'liburu' bihurtuko dira eta modu honetan, gonbidatuek maileguz hartuko dituzte eskuragarri dauden 'liburuak' saioan zehar, euren historiak entzun eta "liburua"-ren eta entzulearen artean elkarriketa bat sortzeko. Entzuleek bestalde, protagonistei entzun, galdetu eta iritzia emateko aukera dute. Formatu honek estereotipo eta aurreiritziak gainditzeko marko bat sortu nahi du, izan ere pertsona guztiek dute zer kontatu.

#Plazandreko proiektu honetan 'liburuak' zortzi emakume izan ziren. Emakume hauek hainbat profilen arabera aukeratu ziren: bertsolaria, kirolaria, politikaria, idazlea, musika-ria, kazetaria, antzezlea eta modeloa.



EMAKUMEAK ESPAZIO PUBLIKOAN

Lehenik eta behin, ekitaldian emakume gazteek espazio publikoan parte hartzerako orduan bizi duten errealitatea zein den aztertu nahi izan zen. Hori dela-eta, hasteko parte-hartzea eurentzat zer den definitu zuten.

ZER DA PARTE-HARTZEA?

Bertaratutako emakumeentzat parte-hartzea entzuten jakitea da, aniztasuna errespetatzen ikastea eta izaera ezberdinak kontuan hartzea. Publikoki eragitea ere bada; gabonetako afarietan hitza hartzea da, ikasgela batean hausnarketa propioak plazaratzea.

Modu askotakoa izan daiteke hau, eta espazio bakoitzaren arabera alda daitekeena. Hori horrela, generoak eragin zuzena du parte-hartzean **#Plazandre**-ko emakume gazteen arabera.

PARTE-HARTZEAK GENERORIK BA AL DU?

#Plazandreko emakume gehienek aburuz parte-hartzeak generoa du. *“Parte-hartzeak beti dauka generoa”* zioen bertan parte hartu zuen emakume batek.

Mendebaldeko gizartea sexu/genero sistemaren baitan dago egituratuta. Hala, sistema honek emakume edo gizon egiten gaitu jaiotzerako unean biologikoki dugun aparatu sexualen arabera, bakoitzari rol sozial ezberdin bat egokitzen zaiolarik. Biologikoki egiten den bereizketa sexua litzateke (emakumea eta gizon); sozialki egiten dena, bestalde, generoa (femenino eta maskulino).

NOLA IKUSTEN DUTE EMAKUMEEK EUREN BURUA PARTE HARTZERAKOAN?

Hitza hartu zuten emakume askok parte hartzerako orduan euren buruari buruz duten pertzepzioa eta euren lagun, lankide edo gertuko mutilek parte hartzearekiko duten pertzepzioa oso ezberdina dela azpimarratu zuten. Beraien esanetan, eurek buelta gehiago ematen dizkiote buruari parte hartu aurretik. Emakumeek parte hartzerako orduan hanka sartuko dutenaren sentsazioa dutela gaineratu zuten.

“Guk agian buelta handiagoa ematen dugu. Eta hau esaten badut? Eta zer pentsatuko dute? Beti epai horren beldur, gu geu izatearen beldur gara. Gizonek, inizatiba handiagoa baino, pausu hori emateari diote beldur gutxiago”.

“Niri pasatzen zait hori gelan, nire buruari esaten diot esateko eta esateko eta gero ez dut esaten. Azkenean ondoko batek esaten du nik esan behar nuena eta kasualitatea, maiz mutila izaten da”.

Gainera, batzuetan emakumeek euren irudi propioa distorsionatzen dutela uste dute askok:

“Ahalduntzeko eskola moduko bat egiten hasi ginenean, neskekin, euren bizi-penak kontatzen hasi eta askok errepi-katzen zuten ez zirela graziosak. ‘Guk ez daukagu arrazoirik, gu ez gara graziosak’...”.

Beraz, parte hartzaile gehiengoaren arabera, emakume izateak, hainbat arrazoiengatik, parte-hartzea baldintzatzen du.

Hala, generoak eragin nabarmena du pertsona guztien eraikuntza sozialean eta genero-estereotipoek emakumeek eta gizonezkoek gizarte egituretan dituzten beharrak eta posizionamenduak markatzen dituzte.

Zentzu horretan, sexu/genero sistemak emakumeak eremu pribatuan kokatu izan ditu historikoki; kontrara, espazio publikoa maskulinoa izan da. Espazio publikoa ekoizpenaren, jardueraren, lan- eta gizarte-bizitzaren, bizitza politikoaren eta ekonomiaren eremua izan da. Gizartean parte hartzeko eta onespina lortzeko lekua izan da, alegia.

Emakumeak sozialki izaki pribatuak izan dira, ez bakarrik erreproduktzio-rako ezarri zaien rolengatik, baizik eta Guerrak (1999) dion bezala, beraiek ere modu “pribatuan” kokatu izan dutelako euren burua. Bai aitorpen sozialean, baita aitorpen politikoan ere. Hori dela-eta, ikusgarritasuna eta balioespena lortu ahal izateko horren kontra borrokatu behar izan dute emakumeek urte askotan zehar (Lasarte et al., 2016).

ZERK BALDINTZATZEN DU PARTE-HARTZEA?

Bakoitzak bere mamuak ditu eta lotsek eta segurtasun-ezak eragina izaten dute parte hartzerako orduan. Are gehiago maskulinizatua izan den eremu batean; sentsazio horiek denak erreproduzitu egiten baitira.

Illo honi jarraiki, ahalduntzeaz hitz egin izan da azken urteotan, honek berdintasunerako bidean duen garrantzia azpimarratzeko. **#Plazandre** ekitaldira gerturatutako emakumeek ahaldunduta egoteak espazio publikoetako parte-hartzean zuzeneko eragina duela uste dute.

Ahalduntzea emakumeek euren gaitasunen kontzientzia-hartzeko prozesua da, maila sozial, ekonomiko eta politikoan eragiteko (Bilboko Udala, 2014). Beraz, garrantzitsua da espazioan norbera non kokatzen den eta besteek norbera non kokatzen duten ikustea eta jakitea. Zentzu horretan, FRIDE-k (2006) dioen moduan, ahalduntzea hiru dimentsiotan banatzen da: pertsonala, erlazionala eta kolektiboa.

Alde batetik, norberak auto-estimua al-tua izatea eta bere burua non kokatzen duen kontzientzia izatea garrantzitsua da. *“Txiki sentitzen zarenaren kontzientzia izatea bera ere lehen pausu bat izan daiteke”* ahalduntzerako bidean, zioen kide batek.

Bestetik, besteekiko ditugun harremanetan norbere nahiak eta interesak defendatzeko gaitasuna izatea ezinbestekoa da; hau da, beste pertsonetikiko sortzen diren erlazioetan bakoitza non kokatzen denaren kontzientzia izatea.

Eremu batean eroso sentitzeak eragin handia du hitza hartzerako orduan, beldur horiek kontrolatzea lortzen baita.

KRISTALEZKO SABAIA PARTE-HARTZEAN

#Plazandre ekitaldiko emakumeek indarrean jarri zuten, askotan, emakumeen parte-hartzea handia izan arren, ez dela sozialki islatzen. Eta prozesu horretan dagoela ahulguneetako bat.

“Askotan sorpresaz udaletik antolatu ditugun gauza gehienetan askoz indartsuagoak izan ohi dira emakumeen ekarpenak, eta gehiago parte hartu izan dute, baina indar edo errealtate hori maiz ez da egoki plasmatzen eta protagonismoa berriz ere gizonen eramaten dute”.

“Azkenean ikusten da unibertsitateko zenbait ikerketetan emakume gehiago daudela lanean, baina gero zenbait guneetan ez daudela, zer gertatzen da? Prozesu horretan non galtzen da emakumeen parte-hartzea?”.

Hala, kristalezko sabaiaik parte-hartzean duen eragina mahai gaineratu zen. Hau, ikusten ez den oztopo bat da, tradizioz gizonezkoek agintzen duten egitura-sareen ondorioa dena eta emakumeei zenbait espaziotara iristea galarazten diena. Espazio horietara ez iristeak, es-tuki du erlazioa parte hartzearekin.

ETA GIZONEK, NOLA EGIN BEHAR LUKETE ALDAKETA?

“Emakumearen rol aldaketek gizonengan izan behar dute eragina eta gizonak ez badaude pixka bat sentsibilizaturuta nola egin aldaketa?” zioen emakume batek. Emakumeen parte-hartzeari hitz egin bazen ere, gizonezkoek prozesu honetan izan behar luketen paperari buruz ere hausnartu zen. Eta “nola egin beharko lukete eurek aldaketa?” galderak ere izan zuen bere eztabaida lekua.

“Gizonek ere parte hartu beharko lukete prozesu honetan eta berauek parte aktibo izan daitezen egin behar dugu lan”.

Ez dago maskulinitate bakarra, baina badago hegemonikoa den maskulinitate bat. Izan ere, emakumeek rol tradizionalak garatu dituzten moduan, gizonen ere rol hegemoniko batzuk garatu dituzte (indarra, iniziatiba, ausardia...). Zentzu honetan garrantzizkoa da erreproduzitzen diren jarrera patriarkalei buruz hausnartzea. Horiek baitira pribilegioak ematen dituztenak.

BIDEAK ERAIKITZEN

Emakume bakoitza toki, bizipen, jarduera eta dinamika ezberdinetatik sartzen da espazio publikora. Antzezlearen agertokia, idazlearen liburua edota modeloaren kamera aurreko unea. Ikasle bezala klasean hitza hartzerako unea edota hitzaldi baten ondorengo eztabaidarako espazioa. Egoera eta une guztiak dira ezberdinak, eta, ondorioz, plazaratzeko prozesuak ere anitzak dira. Bada ordea emakumeek amankomunean bizi duten prozesu bat: gizonak imitatuz sartzen dira espazio publikoan.


“Prozesua doblea da: lehenengo eraikitzen duzu gure ‘ni’ publikoa baina euren parametroen barruan, gero deseraiki egiten duzu eta gero gurea sortu” zioen batek. ‘Euren parametroak’ lehenago aipatutako maskulinitateen markoari izango litzateke, hau da, emakumeak publikoki hitza hartzerakoan rol maskulinoekin egiten dutela.

Zentzu honetan, bai topaketan baita txosten honetan ere, deseraikitze bide horretan eta espazio publikoetan erosoago eta ahaldunduago parte hartzeko prozesu horretan tresnak zeintzuk izan zitezkeen landu zen:

Heziketa

Parte-hartzeak generoa izateaz gain, oraindik ere, heziketan bereizketak egiten dira neska eta mutilen parte hartzeko moduei dagokionez. Hori azpimarratu zen topaketan. Mutilei barre egiten, espazioa hartzen eta plazagizon izaten irakasten zaie; neskei berriz, eserita eta lasai egotera bultzatzen zaie. Hori dela-eta, ezinbestekotzat jotzen da hezkidetzaren bermatzea.

EGKtik egindako *BerdinHezi: hezkidetzarako lehen urratsak* dokumentuan azaltzen da hezkidetzak hezkuntza formalean duen balioa. Hala ere, ezin daiteke ahaztu hezkuntza eskolaren eremutik haratagoko kontu bat dela. Hori dela-eta, parte-hartzeari lotuta, ezinbestekotzat jotzen da hezkidetzaren eremu guztietan presente izatea. Barneratu ditugun estereotipo eta rol sexistak gainditu eta emakumeak espazio publikoetan ahaldundutako.





Sentsibilizaziotik abiatuz emakumezko erreferentziak sortzea

Hedabidetan, liburuetan, filmetan... kontsumitzen dugunak eta ikusten dugunak badu eragin nabarmen bat gudan. Izan ere adierazten diren eta eraikitzen diren diskurtsoen formek gure jarreraren nolakotasuna egituratzen dute.

Pixkanaka-pixkanaka gero eta emakume erreferente gehiago ikusten ditugu espazio ezberdinetan: zinean, kirolean, literaturan, artean... Hala ere, oraindik emakume askoren lanak itzalpean geratzen dira. Hedabideetan esaterako, “gizonezko mundu bat” irudikatzen da bereziki (Garcia, 2013). Izan ere, alor askotan emakumeak egon badauden arren, ez da plazaratzen haien irudia.

Hori dela-eta, beharrezkoa ikusten da espazio ezberdinetan emakumezkoen irudiak nabarmentzea, erreferenteak sortzea. *“Emakume erreferenteak ez badaude, zer ikasiko dugu?”*.

Politika publikoak sortzea

Errealitatean emakumeen parte-hartzea gizonezkoena baino baxuagoa dela kontuan izanik, beharrezkoa ikusten da ekintza positiboak ezartzea.

Zentzu horretan, emakumeen parte-hartzea bultzatzeko politika publikoak sortzea ezinbestekoa da: emakumeak erabaki guneetan parte hartzea, emakumeen antolaketa gaitasunak sendotzea, euren erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa bultzatzea... Bilboko Udalaren (2014) arabera, honakoak dira parte-hartze hori ahalbidetzeko gakoak:

Prozedura demokratikoak erabiltzea, pertsona guztientzako aukera berdintasuna errazteko.

Parte-hartzearen maiztasuna eta moduak berrezartzea.

Erakunde sozial, politiko edota kulturaletan aukera-berdintasunezko helburuak jorratzea.

Gizartean emakumearen zeregin sozialari buruz pentsamendu kolektiboak dauzkan estereotipoak hausteko politikak bultzatzea.



Saretzea

“Zailtasun nagusia da emakumeek ez garela batzen” zioen emakume batek eta, gehiengoaren arabera, emakumeen parte-hartzea indartzeko tresna garrantzitsu bat da saretzea. Espazio ezberdinetatik datozen emakume anitzak bildu, hausnarketak konpartitu eta elkarren arteko diskurtsoak indartzeko.

Izan ere, emakume batek zioen moduan *“oso leku desberdinetatik gatoz, baina oso esperientzia berdinak ditugu”*. Hau da, espazio publiko bakoitzean ematen den parte-hartzea oso ezberdina den arren, parte-hartzean faktore askok eragiten duten arren eta norberaren egoera oso ezberdina den arren, **#Plazandre** ekitaldiko gehiengoak partekatu zuen esperientzia berbera: espazio publikoetan eroso eta ziur parte hartzeko emakumeek lanketa bat egin behar dute. Hori dela-eta, lanketa hori kolektiboan egitea aberasgarriagoa eta errazagoa da.

“Uste dut behar dugula elkarren laguntza eta zaintza. Bane errebisio hori egin behar dugu, sareak eta sororitate hori gure artean landu, niretzat gairik inportanteetako bat da momentu honetan”.

Parte hartzeko modu berriak aitortzea

Lehen esandakoaren harira, emakumea espazio publikoetan gizonak imitatuz sartzen da, hori dela-eta, parte hartzen duenean rol maskulinoak bereganatzen ditu. Bai jarrera korporalean, baita diskurtsoak eraikitzerako orduan ere. Bertso eskoletan esaterako, kantatzeko premisa altu eta paparra aterata kantatzea izaten da. Eta ahozko diskurtsoak eta diskurtso korporal horiek imitatzeko joera beste espazio batzuetan ere gertatzen da. Horren arrazoi nagusia presentzia eta boterea bereganatzea izan ohi da.

Baina emakume denak ez dira eroso sentitzen kode horiek imitatuz, hori dela-eta, parte hartzeko modu berriak aitortzea eta zilegiztatzea ezinbestekoa da. Hau da, historikoki jarrera femeninoak kontsideratu direnei garrantzia ematea eta horien erabilerari zilegiztasuna ematea.



ITXIERA

Ondorio-txosten honi amaiera emateko, **#Plazandre** ekitaldian ateratako ideia bat azpimarratzea garrantzitsua da: “Zure parte-hartzeak edozein eremu anitzagoa egiten du”. Anitzago egiten ditu espazio publikoak denok dugulako zer esan. Guztion hausnarketak dira garrantzitsuak eta diruditen burutapen bitxieneke ere balio dezakete ekarpenak egiteko.

Parte hartzeko modu anitzak zilegiztatu behar ditugu ‘plazak’ ere askotarikoak izateko. Goxotasunetik, aniztasunetik

eta ahalduntzetik. Gure hitzen jabe izan behar gara eta gure beldurrei erreparatzeko ausardia izan.

Hasierako aipuak dioen moduan, tradizioak asmatuak dira eta apurtu daitezke. Has gaitezen beraz ikasitakoa deserakitzen.

APARTEKO MATERIALA

Emakumeak eta kirola. Eta klima aldaketa?

Naroa Agirre, Leire Olaberria eta Ainhoa Murua.
San Telmo Museoa

2018ko irailaren 19an Gipuzkoako kirol arlo desberdinetako hiru emakume elkartu ziren San Telmo museoan, kirolaz, emakumeaz eta jasangarritasunaz hitz egiteko.

<https://bit.ly/2PUbaZZ>

“Trapu zikinak asanbla dan garbitzen dira”.

Topatu Gazte Proiektu
Komunikatiboa

2017ko uztailean ezker abertzaletik kanporatu zuten militante bat Euskadiko emakume askori eraso egiteagatik. Eraso horretatik abiatuta militantzia esparruetan gertatzen diren eraso sexistak azaleratu dituzte hainbat emakumek Klittok eta Topatuk elkarlanean egindako erreportaian.

<https://bit.ly/2r5uPHK>

EMAROCK “Iragana, oraina eta geroa”.

Emarock Elkarte

“EMAROCK” proiektuak, musikan aritzen diren emakumei protagonismoa eta espazio bat ematea du helburu. Hausnarketarako dokumentala da. Zergatik daude horren emakume gutxi musika munduan?

<https://bit.ly/2FH302w>

Emakumeak oholtzara.

Topatu Gazte Proiektu
Komunikatiboa

Euskal musika eszenaz, inertziez, erronkez, zailtasunez eta aukerez dihardute Izaro Andres Zelaieta (Izaro), Ane Bastida Saiz (Hesian, Lauroba...) Onintza Rojas Olazabal (Koban), eta Olatz Salvador Zaldua (Skakeitan, Olatz Salvador) musikariek Topaturen erreportai honetan.

<https://bit.ly/2ryl2X8>

Emakumeak oholtzan.

Hala Bedi irratia

Irrati tertulia Ana Iruretagoyena eta Izaro Andresekin. Nola feminizatu musika?

- Nola eraiki eszenatoki musika gun e askeak?
- Musikak generorik dauka?
- Nola lortu benetan musika estilo eta eredu feminista bat?

<https://bit.ly/2DJVbq2>

Mujeres y Música en el Bioritme 2017.

MYM Mujeres y música

Musika sarloan emakumeen egoerari buruzko jaialdi batean parte hartu zuten emakumeen iritziak jasotzen dira.

<https://bit.ly/2BwThHN>

BIBLIOGRAFIA

Bilboko Udala. (2004). *Jabekuntza empoderamiento*. Bilbo: Emakume eta Garapenerako Lankidetzako Zerbitzua.

FRIDE. (2006). El Empoderamiento. *Desarrollo "En contexto"*, Vol. 01, pp. 2-8.

Garcia, Adrian. (2013). "Ezkutuko lana, uhinetara". *Berria*. 2018ko azaroraren 11n berreskuratua.

<https://www.berria.eus/papere-koa/1545/034/003/2013-10-17/>
www.berria.eus/papere-koa/1812/008/001/2016-09-08/frustrazioa_dago_gazteetan_ez_dute_aukera_ikusten_ibilbide_egokia_egitekoko.htm

Guerra, María José. (1999). Mujer, identidad y espacio público. Contrastes. *Revista interdisciplinar de filosofía*, Vol. 4, pp 45-64.

Lasarte, Gema; Alvarez, Amaia; Ugade, Ana; Lekue, Pablo eta Martinez, Judit. (2016). *Emakume bertsolariak: ahanzturatik diskurtso propiora*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.